

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zerain



Aurkibidea

Udalerria: Zerain

Sarrera



Gipuzkoako hegoaldean eta Goierriko eskualdean dagoen udalerri euskalduna da. Aizkorri mendikatearen iparraldeko magalean, leku menditsu batean kokatzen da. Herri honetako jarduera ekonomikoa orain gutxi arte nekazal jarduerarekin eta meatzaritzarekin lotuta egon da, azken hau ez zen oso ohikoa Gipuzkoan. Meatzaritzaren esplotazioa, betiere apala, XX. mende erdialdean amaitu zen, baina aztarna interesgarriak utzi ditu. gaur egun landa-turismoak garrantzi handia du herrian.

- **Biztanleak:** 256
- **Euskaldunak:** %93,9

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **35**
- Zintak: **30**
- Pasarteak: **61**
- Transkribatutakoak: **14**
- Audioak: **11**
- Bideoak: **50**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza
- Zerain Dezagun Fundazioa

Hizlariak



Karlos Agirre Arrizabalaga (1935)



Adelita Aizpeolea Alza (1939)



Juan Aizpeolea Arzelus (1946)



Milagros Aizpeolea Gerriko (1937)

Kandido Aizpeolea Muñoa (1920)



Zeraingo Barbarimuño baserrian jaioa 1920an. Aita bertakoa eta ama Basozabalgoa zituen, biak Zeraingoak. Eskolan Zerainen eta neguan Zegaman ibili zen, artzain mundua gertutik ezagutua du eta eskolan denbora laburrez ibili zen. 6 urte zituela hasi zen artzain etxean. Zeraingo artzain batzuen izandako borda hartu, berritu eta Urbian egon zen artzain anaiarekin batera. 200 buru inguru izatera heldu ziren. Ezkondu ondoren, emaztearekin batera haren bordan egon zen artzain; Urban eta Altsasun ere bizi izan zen.



Juanita Alustiza Arostegi (1926)

Joxe Alustiza Arrondo (1927-2015)



Joxe Zeraingo Sagastibil baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa, ama berriz, zegamarra. Umetan, herriko eskolan ibili zen. Gazte garaian, akolito ibili zen, eta, apaizari zeraindarren soroak bedekatzeko laguntzen aritzen zen besteak beste. 18 urte zituela, Lima lantegian hasi zen lanean, eta, bertan erretiratu zen. Zerainen jaio, hezi eta hazia izanagatik, bertako kontu ugari aipatu zizkigun elkarrizketa egunean.



Tomas Alustiza Arrondo (1932-2018)



Antonio Alustiza Telleria (1932-2014)



Karmen Alustiza Telleria (1929-2020)



Joxe Mari Apaolaza Olea (1932)



Joxe Arakama Lekuona (1935)



Joxe Arrondo Oria (1941)

Bengoetxekoa?



Iñaki Berasategi Lasa (1955)



Kontxi Errasti Reparaz (1949)



Damiana Etxaluze Zubeldia (1927)

Damiana eta Ines Etxaluze ahizpei elkarrekin egin zitzaaien grabaketa. Argazkian, Damiana ezkerrekoa da.



Ines Etxaluze Zubeldia (1929)

Damiana eta Ines Etxaluze ahizpei elkarrekin egin zitzaaien grabaketa. Argazkian, Ines eskubikoa da.



Joxe Mari Etxaluze Zubeldia (1937)



Kontxi Gabiria Iztueta (1945)



Antonio Garcia Agirre (1949)



Miren Gerriko Berasategi (1936)



Inazio Intxausti Arrondo (1932)

Mari Angeles Iñurrategi Arozena (1962)



Olabide baserrian jaioa. Mari Angeles alaba bakarra zenez, bera geratu zen jaiotetxean. Elkarriketa egin zitzaionean, bertan bizi zen senarra (Idiazabalgo [Juanjo Aranburu](#)) eta alabarekin. Olabiden lehen behiak zituzten, ardiak ezkonduz geroztik izan zituzten. Juanjok etxetik ikasitakoa, Mari Angelesek Arantzazuko eskolan ikasitakoari erantsi eta aurrera eraman zuten esplotazioa. Neguan etxe inguruko larreetan ibiltzen ziren ardiak, Zerainen. Aldiz, gaztak Idiazabalgo gaztandegian egiten zituzten. Elkarriketan Juanjoren anaia [Jexux Aranburu](#)k ere parte hartu zuen.



Joxe Antonio Iparragirre Mendaraz (1943)



Juan Mari Lekuona Berasategi (1948)



Juan Lekuona Dorronsoro (1932)

Maria Mendizabal Berasategi



Maria Zeraingo Otatzagoikoa baserrian jaio zen, aita zuen bertako eta ama, berriz, zegamarra. Eskolara Zerainera joan zen; baina azken urtea Zegaman egin zuen, monjekin. 12 urte zituela eskola utzi eta baserrian aritu zen lanean, baserria handia zen eta lan asko izaten zuen, artzain lanetan ere ibili zen Maria. Elkarriketa Mutiloako bere lagun [Encarnación](#)ekin batera egin zitzaion, Maria eskuinaldekoa da.

Eugenio Mendizabal Mendizabal *Muño* (1934)



Barbari auzoko Barbarimuño baserrian jaio zen, hortik ezizena. Morroi joan zen artzain gisa 15 urterekin. Sei urte eman zituen morroi Aizpeolearekin. Morroi izateari utzi zionean, anaia Joxerekin ibili zen artzain. Uda sasoia Urbian igarotzen zuten eta negua Mutiloan edo Zerainen. Gero bere artaldea erosi zuen eta orduan hasi zen uda sasoian Aizkorri inguruetara joaten.



Joxe Mujika Alkain (1934)



Julian Muñoa Agirre (1933-2024)

Jabier Muñoa Gerriko (1966)



Zeraingo Basazabalgoa. Aita, Julian Muñoa, Basazabalgoa zuen eta ama, Miren Gerriko, Zeraingo Aizpekoa. Etxean lehendik zetorren lanbideari, gaurkotasunak eskatzen zituen berrikuntzak eginez eman zion segida. Gipuzkoako Ardi Latxa elkarteko presidente izan zen. Bere produkzio bide nagusia gazta da. Gazta egiteko azken teknikak martxan, bai ardiak jezteko bai gazta egiteko, garai batekoa ere ezagutu eta praktikatu zuen Jabierrek.



Xanti Muñoa Telleria (1949)

Juana Olea (1912)

Zeraingo Mendarte baserrian jaio zen 10 senideko familian. Zerainen eta Seguran eskolan ibili ondoren, Donostiara joan zen lanera, neskame.

Milagros Telleria Azurmendi (1927-2014)



Milagros Zeraingo Urrustiazpiko baserrian jaio zen, aita zuen bertakoa eta ama berriz Zegamako Antzelaikoa. Zerainen jaio, hezi eta bizi izandakoa izanagatik, bertako kontu ugari esan zizkigun elkarrizketan. Elkarrizketa bere lagun [Gregori Telleriarekin](#) batera egin zitzaion, Milagros, argazkian eskubitan agertzen dena da.

Gregori Telleria Mintegi (1922)



Gregori Zeraingo Aizpegoikoetxe baserrian jaio zen, aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Ursuarangoa. Zerainen jaio, hezi eta bizi izandakoa izanagatik bertako kontu ugari esan zizkigun elkarrizketan. 2011ko elkarrizketa bere lagun [Milagros Telleriarekin](#) batera egin zitzaion. Gregori, argazkian ezkerretan agertzen dena da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. Barbari auzoa lehen

- **Hizlaria(k)**: Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZER-002/002
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:01:39. **Bukatu**: 00:02:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Barbari auzoa lehen nolakoa zen azaltzen du. Herritik ordu erdiko bidea zegoen haraino. Beraiek Zegamara joateko joera handiagoa zuten Zerainerako baino.

Transkripzioa

- Barbari-muiño ze auzotan dao, Zeraingo ze auzotan?
- Barbari alden, Barbari barrion.
- A, Barbari barrion izena da baita're?
- Bai.
- A. Ta nolakoa zan umetan Barbari auzoa, zu umea ziñanen, nola akordatzen zea?
- Ba, umetan, ni han neonen, bideik ez zeon, kamiñoik-eta ez ta, leku pobrea, urruti. [Auto...] iñoa juteko're ordu erdiko bidea in behar oiñez ta holako kontu [...] ordun.
- Herritik aparte geatzen zan.
- Aparte bai, ordu erdiko bidea Zegamati. Eta Zeraiñeti gure baserria... hor erdin, bai, denbora igual xamarra behar izaten zan, ordu erdi bidea.

- Zuek norako joera gehio zeukezuen?
- Guk joera general Zegamakua asko, baiño eskolaa-ta lehenegoti behintzat komunioa itteko kontuk-eta Zeraiñen, herrin. Gero Zegaman'e eskolan ibili nitzen pixkat ni.

1.2. Zeraingo auzoak eta Barbariko baserriak

- **Hizlaria(k):** Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZER-002/006
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:04. **Bukatu:** 00:07:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Barbari auzoan zer baserri zeuden aipatzen du. Zeraingo auzoak ere aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Kandido, zuen auzon Barbari-muiñon zenbat baserri zien?
- Zenbat baserri barrio hortan?
- Bai, izendauko zittuzuke?
- Esango dizut: guria, Basazabal, Barbari-Arrese, Barbari-Haundi, gero Arrola, bi baserri han 'e ta Urrusti hiru.
- Ba mordoxka.
- Bai, gero zabaldu, [...] hola izaten zan bai, danak barrio hortakok kontatzen zien.
- Zeraiñen barrio asko zien? Barbari-muiño ta...
- Zeraiñen Barbari alde hori barrioa ta, Aizpe beste bat, handi Legazpi aldea, eta behean zabaldu dana, hola [...] estuik ez, danak zabaldu.

2. Politika

2.1. Gari bila Arabara

- **Hizlaria(k):** Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZER-002/009
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:09:48. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** Garia Arabako zenbait herritatik ekartzen zuten isilean, baserrietatik. Behin lagun bati esan zion nondik ekartzen zuen garia eta lagundu egin zion hara joaten. Bidean guardia zibilak ibiltzen ziren eta estraperloan zebiltzanek kontuz ibili behar izaten zuten haiek harrapa ez zitzaten.

Transkripzioa

- Kandido, garie esan dezu Arabako herri hoitatik ekartzen zenula.

- Bai.

- Almazenen batzutatik o...?

- Ez, ez, ez, baserriya ta ixilik, ixilik gauen ta hola askotan.

- Gauez juten ziñeten?

- Bai. Ni izanda nao nere laun bat, ezagun haundie zan, ta harek'e famili haundie zeuken, ta berak hango berriik ez zekin, hua hemen hemen bizi zan Zegaman, ta esan zien: "hola nik'e gari pixka bat ekarriko nitek eta lagunduko al diake hik? ba al daukak ezagunik eo han hola" ta. Hemen'e ya alkarrekin-ta asko ibiltzen giñen; beno, ni baiño zaharragoa zan hura baiño behintzat... Familie zeuken harek haundie. Ni gaztea nitzen ordun. Ta esan nion: "ba, bai ba lagunduko diat" ta nik [erositta ipini non] garie ta ekartzea ni launduz bera jun zan. [Zea], aston bat o zaldin bat o bazittun ta hortaa jun giñen. Ta biren hasi ziun euri lanbro zea hori ta erdi busti, erdie baiño gehio busti, ta gauen jende bildurre, baiño ordun gauen ez zeon biden iñor, halako [...]kin ez zeon enbarazoik. Ta gauen egin nun [...] Urbia, ta Urbin gure txabolan'e, handik buelta inda lo in ta hura hurrengo egunen gariak hartu ta etxea etorri zan Urbitik. Ogie garestia zan hura're, baiño jan in behar!

- Biden batenbat ibiltzen zan?

- Bai, gurdia, guardia zibiliek eta beti hortik zeoze kargu pixkat hor beti eoten zan.

- Eukitzen zenuen puntu jakiñekoik han eoten ziela, beti [...].

- Ez hola puntu jakiñik eta ez gendun, baiño beti kuidadon ibiltzen zerbaiten e... guk hango bidek bagiñezkiun, guk mendi hoitako bidek Donostikok baiño hobeto geiñizkiun.

- San Adrian aldetik etortzen ziñeten?

- Ez, hor, Andraitz.

- Andraiztik.

- Handik behera. San Adriandik guretik... iya Zeraindik [juteko] mendittik handik hobetogo gelditzen zan, iya errexo, gertugo.

2.2. Garia Zegamako errota ehotzen

- **Hizlaria(k)**: Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZER-002/011
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:13:04. **Bukatu**: 00:14:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Garia kanpotik ekartzen zuten hilero eta Zegamako errota eramaten zuten ehotzera. Hainbat errota izenak aipatzen ditu. Errota batetik bestera, garian ez zuten alderik nabaritzen.

Transkripzioa

- Ta hoi kanpotik ekartzen zenun.

- Gero, uain, entregau ta etxen jateko kanpotik ekarri behar.

- Ta errota noa eramaten zenduen?

- Hemen Zegamaa ta hola. Zegaman ihotzen genun, [...] ekartzen zuen.

- Zeraiñen bertan errotaik ez zeon?

- Baita, baiño hue... hemen mugan, hemen Zegamako mugan badao baserrie ta guk beti horrea. Gaiñea, gauen-ta ibiltzeko-ta hobeto.

- Ze izena zun?
- Errotak?
- Bai.
- Arakama azpikoa. Uaindi're hor dao hori.
- Eta Zeraingok? Zeraingo errotak ze izen zeuken?
- Zeraingo errotak e, Iñurrategiza, Zerain bertakoa. Segurakoa lehen, guk lehen Seguran genun errota fijoak juten giñana, baiño hua ia aldreboxio zeon ta ez giñan juten hauntza gauen.
- Kandido, eoten zan ze esana baten o besten iriñe diferentea itten zuela ta, diferentziak eoten zan?
- Guk ez giñon holako diferentziak billatzen.
- Ez?
- Ez.
- Ez zeon e...?
- Ez, eongo zan igual, baiño guk ez giñun e...

3. Familia eta harremanak

3.1. Ogia etxean egin eta labea bizilagunekin konpartitu

- **Hizlaria(k):** Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZER-002/012
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:14:06. **Bukatu:** 00:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Etxean astean behin egiten zuten ogia. Labea etxe ondoan zeukaten; aldameneko bizitzakoekin batera erosi zuten labe hura. Garia etxean kutxan gordeta edukitzen zuten. Ogia amak egiten zuen, normalean larunbatetan.

Transkripzioa

- Behin garia eman, etxea eaman ezkeo, gure etxen beti asten behin eitten zan ogie, labesue. Bi bizitzako etxea zan ta biok labea sozio.
- A bai?
- Bai, ta...
- Ta nun zeukezuen labea ?
- Etxe ondon kanpon.
- Kanpon?
- Bai. Halaxe zan, bai.
- Ta sozio iten zenduen?
- Ez.
- Sozio.
- Ez, ez, bakoitzek beretzako, baiño labea sozio genduken. Haiek... ogie in, bakoitzek beretzako, bere gariekin bakoitzak ahal zona. Hortan ez giñen [metitzen] ezer. Uaiñ...
- Ta ze itten zenduen ba... zer zan, bi basarrin o bi bizitzan arten pagautakoa labea?
- Bai, bai, bi bizitzan arten.
- Eta nun gordetzen zenuen etxea eamandako garie? kutxan?
- Bai. Kutxa, jeneral kutxaa. Eta, bestela, lurren utzi ezkeo beti sague eo zerbait beti izaten da eta kutxan, ya seguru eoten zan.

- Ogie zenek iten zun, amak?
 - Jeneal amak, bai. Ama izaten zan ogigillea.
 - Zenbat denborako ogia izaten zan?
 - Asten behin itten zan ogie gure etxen, zapatun jeneal, jayeako ogi biguna. Baiño etxen indako... labekin-ta ondo indako ogie zortzi egunen'e arten jateko ondo eoten zan, e. Gero, erretakon, etxen armario zeak egoten zien, kajoi batzuk, oremahie esaten zion; han sartzen zan, itxi ta han ez zan ezen nobedadeik izaten, ez katuik ezta demonioik ez zan aillatzen hauntza.

4. Baserria

4.1. Txabola konpondu, bete eta erabili

- **Hizlaria(k):** Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZER-002/014
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** 6-7 urte zituela ekarri zituzten lehenengo ardiak etxera. Urbira gerra aurrean hasi ziren joaten. Zeraingo artzain batek utzitako txabola konponduta, beren txabola egin zuten. Txabolatik neguan jaisten ziren etxera; eta neguan txabolako ateak zabalik uzten ziren, handik pasatzen zen norbaitek haren beharra edukiko balu ere. Txabola nolakoa zen eta barruan zer izaten zuen deskribatzen du. Lagun bat edo bi egoten ziren txabolan.

Transkripzioa

- Zuek, esan dezu, sei-zazpi urte zittuzula ekarri zittuzuela lehenengo ardik etxea.
 - Bai.
 - Eta Urbira noiz jun ziñeten?
 - Urbira ya gerra aurreraxeoko urte baten; lehen beti etxe alden beheran eoten giñen.
 - Gerra aurren jun ziñeten.
 - Bai.
 - Eta txabola lehendik zeukezuen ala in in zenduen o...?
 - Txabola in in gendun. Uaindio gogon daukat, Zeraiñen lehen artzai izandako zahar batzuk ya, ni uain naon bezela, zahartuta, erretiatu ta txabola utzita zeuken, ia erorita-ta zeon, ta hura berrittu ta txabola geurea, geure izenen geuretzako in gendun txabolea.
 - Ze izen zun txabolak?
 - Txabolak izenik ez zeken, Muiñoko txabolea esaten zion beste ezer ez.
 - Muiñokoa?
 - Bai, gu Barbari-Muiñokok nola giñen.
 - Eta ardik negun behera etorri ta udan eoten ziñeten han?
 - Bai. Ta ordun kondizioa izaten zan, negun txabola zabalik uztekoa, jendea nezesidaden ailletzen bazan'e barrun eon zedilla.
 - A bai? Eta zabalik eoten zan?
 - Zabalik. Hango txabola denak —uain ez dakit, ez due ingo igual hola, baiño— zabalik uzten zien. Hango zerbaiten [...] kuidado pixkat zeukanak

harri zulon batzutan-eo gorde, etxea ekartzen ez ibiltzeatio, ta hurrena atzea jun ta udaberrin atzea txabola bildu.

- Nolakoa zan txabola? Zer zeukezuen txabolan?

- Txabolan ze izango zan ba, lurrekin tapatuta. Atxurrekin lurren zohie atera ta harekin "zaa" ta... Bazien artzaiek [...] zahar xamarrek-eta oso egoki, ondo itten zuenak eta. Guk bezelakok eaman ta haik ipiñi ta.

- Eta zer zeukezuen, sue ta...?

- Sue, sue. Sue, sue, bai, sue barrun.

- Ekonomika o?

- Ez, ez. Ekonomikak gero jarri zittuen batzuk. Guk ez genun jarri, nik alde in non, ta ni besteik ez zan gure etxen artzai ibiltzen gero ta.

- Ta zer zenun su bajue o...?

- Su bajue, bai.

- Su bajue. [Ohiyaik] bai?

- Ohia, kamaiñea esaten zitzaion, bai ohia.

- Kamaiñea?

- Bai, kamaiñea izaten zan ba, ipiñi ta illarrea o, zea, garoa balin bazan igual, ipiñi ta haren gaiñen koltxoia eaman etxeti ta. Amak izarak-eta garbittuta ipintzen zigun ta [...] eman ta. Ohia izaten zan, muelleik ez, jenealen, baiño bestela, etxen bezela ohia. Guk horixe... ohi onen lo itten gendun.

- Ta zenbat laun eoten ziñeten txabolan?

- Laune bat o bestela bi; anaie ta biok eta... Ya ni pixkat aillatu nitzan... ni bakarrik asko, gehienen.

4.2. Lehen artzain gehiago ardi gutxiagorekin

- **Hizlaria(k)**: Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZER-002/015
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:19:42. **Bukatu**: 00:20:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Lehen Urbian artzain asko zegoen, 22 ere izan dira. Artzainek ardi gutxiago izaten zuten lehen. Txabolaren barruan ez zuten izaten ardientzako lekuri.

Transkripzioa

- Ordun´e Urbin artzai asko zan?

- Urbin aillatu zien hogeita bi-hiru artzai eotea´re. Uain gutxi dare. Bai. Ardiik´e artzai gutxigo uain, ordun [...] medio] gehio eukiko dittue, baiño... Artzaiek ordun uaingon alden ardi gutxi izaten zuen.

- Zuek lehenengo Urbia jun ziñeten garaian, Oñatitik erositako ardi hoikin?

- Ba Oñati ta, aurea, gehio erosi berriz´e baita; ya artaldea formauta genduken. Haik gutxi zien, berrogei ardi eo hola erosi zittuenak lehenengo, baiño gero ya, ba, berrehunik ez zian osatuko, baiño ia gertuatun eo hola.

- Txabolan bazeren ardintzako tokik?

- Ez, ez, ez, ez.

- Kanpon.

- Geu txabolan, ta txakurrak aldameneko ate ondon lotuta. Besteik ez zan. Ta oillo batzuk´e izaten giñutzen, arrautzak...

- [...].
- Arrautzak'e gustatzen zaion ta. Ez, ez, ganaduntzako lekuik ez zan izaten.

4.3. Urbian beste txabola batzuk ere bazeuden

- **Hizlaria(k):** Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZER-002/018
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:22:19. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Urbian lagunak zituen; kilometro karratu baten barruan bost txabola zeuden. Aizkorri aldera eramaten zituen ardiak Kandidok. Ardi latxak izaten zituen.

Transkripzioa

- Zuk zure lagunartea bazenun han Urbin? Bai?
- Bai, launartea, nik'e nere mouko launek-eta banittun, alkarren inguruko txabolan neure kintoa're hantxe eukitzen non bat eta.
- Bai? Gertun bazenun beste txabolaik?
- Bai.
- Zuretik hurren, bai?
- Ze esango dizut ba nik, gu lau-bost txabola eongo giñen kilometro erdi baten barrun eo kilometron barrun behintzat.
- Ze aldetaa zeukezuen txabola, Araba aldea o...?
- Aizkorri pasau ta lehenengoa, alde hontati.
- Aizkorri aldea ardik ematen zittuzun, Aizkorria?
- Aizkorri aldea, bai.
- Ze ardi klase zeukezun?
- Ba latxa. Latxa, hemengo klase hoi.
- Gorria o beltza?
- Beltza, guk beltza.
- Zuek beltza.
- Gorriik'e batzuk izaten zittuen, baiño guk beltzak genduzken. Baiño gehienak beltza zeuken hor.
- Ohitture bazan, ez?
- Bai, bai.

4.4. Artzainaren eguneroko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZER-002/019
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:25:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Artzainaren bizimodua oso lotua zen, baina baserriko bizimodua baino errazagoa. 200 bat buru izatera iritsi zen Urbian zegoela. Artzain gehienek ardi kopuru antzekoa zuten gehienez. Artzain

zela, bere eguneroko bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du. Ardiak erraz jezten dira normalean.

Transkripzioa

- Nolakoa zan artzaien bizimodue ordun?
- Artzaien bizimodue, ze esango dizut nik, sujetoa oso. Beste [...] artzaien bizimodue baserrikoa baiño errexagoa da, baiño sujetoa. Han juergan-ta eunero-ta ez dao ibiltzeik, han, sujetoa, bere martxai segi behar. Ta beste lekutan bezelaxe, biziko balin bada ta jango bada, lana ein behar.
- Zenbat buru eukitzea aillatu ziñen, zenbat ardi?
- Berrehun bat buru eukitzen giñun guk han.
- Berrehun bat.
- Bai. Gero, hemendik gero ni Urban-ta eon nitzen ta gero gehio izaten giñuzen, baiño Urbin berrehun bat inguru. Ta gehienak tamaiña hoi. Hirurehunekoik ez zan bakarrik eongo ordun Urbin arten, ni han neon deboran. Gero ya oain bai, oain bostehun ta seirehun-ta esaten due, baiño.
- Berrehun buru, e... berrehun buru, lo asko in gabeko eunek izango zien.
- Beno, lo...
- Ze ordutan jeikitzen ziñen?
- Jeiki? Urbin [goizik...] artzaiek, eune argittu ezkeo goizen, arriba. Eunen siesta beti itten zan, baiño goizen ardik jetxi ta itteko... Ya ardiik jextei utzi ezkeo, ez zan holako apuroik eoten, ordun gehixeo, lo gehixeo eonda're libre. Baiño ardik jeixten zien denboran, goizen jeiki ta ardik jetxi behar izaten zuen, ta gaztaie itteko ta, esnea garaian jetxi ezkeo errezago [...] itten zien.
- Ardi jeztea eskuz?
- Eskuz, bai.
- Bazenuen... nunbaitten jartzen zittuzun o banan-banan... bazenun toki jakiñik ardi jezteko?
- Ez, ez, ez. Ardik norberak fijo dabillen artalden —beti izaten dia izuk eta alde iten duenak, baiño— gehienak errex jexten die. Arrimatu itten die, gaiñea.
- Ibiltzen zenun sillaik?
- Ez.
- Lotuta o.
- Ez, pikotxen.
- Pikotxen?
- Pikotxen.

4.5. Egunean 6-8 gazta egiten zituen

- **Hizlaria(k)**: Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZER-002/020
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:25:24. **Bukatu**: 00:26:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Egunean 6-8 gazta egiten zituen, etxerako eta saltzeko; bizimodua handik ateratzen zuen. Ordizian saltzen zituen gaztak. Gaztak nola egiten zituen aipatzen du.

Transkripzioa

-Eta zenbat gazta itten zittuzun, zenbat gazta?
-Behiñ Urbia jun ezkeo sei gutxi izaten zan, gaztak e ba eunen'e batzutan sei zortzi gazta ta beste batzutan gutxigo're bai ta.
-Eta etxeako ala saltzen zittuzun?
-Etxeako ta saltzeko, saltzeko.
-Saldu're bai?
-Bizimodue handik ateratzen zan.
-Noa saltzen zittuzun?
-"Villa Franca"n itten zan ferie, "Villa Franca de Ordicia".
-Ta zuk ematen zittuzun Ordizia? ala etxekon batek?
-Ba, nik eamaten nittun, gero nik baiño, gazten mutikoa nitzen arten etxekok anaie.
-Gaztaiak...
-Anaie ta, ama're bai ta-
-Gaztaiak e, nun itten zittuzun [...]?
-Eskutan, eskutan einda, gero ia, zea, ze, herri hontan, ze ma, ixtuzteko aparato bat.
-Bazeukazuen estutzeko aparatoa?
-Bai, gero bai, lehengotik ez, baiño gero bai.
-Ta lehengotik nola estutzen zittuzun?
-Eskutan.
-Eskuz.
-Eskuz.
-Gazta tokik bazeukezun?
-Bai, txaboloan, dana leku bat izaten zan, baiño [mantxok] beti zeoze apartexo, aparte.

4.6. Larrea ona bada, esne hobia lortzen da

- **Hizlaria(k)**: Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZER-002/021
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:26:44. **Bukatu**: 00:27:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Ardiak libre edukitzen zituen, larre librean beren kabuz jaten zuten. Urbiako larrea ona zenez, esne hobia ematen zuten ardiek.

Transkripzioa

-E, ardik esan dezu libren eukitzen zittuzula?
-Bai.
-Larre libren jaten zuenak ala pentsue ematen zitzaion, ez, dana larren?
-Ez, berak berak jaten zuen.
-Diferentzie?
-Diferentzie, harek beti izan du leku ona o famea ta. Hango esnekin gaztaia goxoa itten zan, hemen behekokin baiño han hobexoa itten zan.
-Zeatik hoi, zeatik?
-Larre fiñagoa, jaten zuen larrea fiñagoa. Uaiñ'e ni urten behin eo hola juten naiz ta, urten bazkari bat o bi itten dittut nik uaindio hor Urbin, eta, ta Urbiñ uaiñ'e, beti difentzi haundie eoten da larren fintasunen.
-Ardintzako tokie?

-Ardintzako tokie, denbora onakiñ ondo, txarrakin e.
-Gorra izangoa hua ezta?
-Aguantau in behar, aguantau in behar.

4.7. Urbiatik noiz eta nola jaisten zen

- **Hizlaria(k):** Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZER-002/023
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:27:51. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Ardiak egunean bitan jezten zituen. Esnea ez zuen saltzen, gaztak egiteko erabiltzen zuen. Lehen zaldiarekin edo astoarekin joaten ziren batetik bestera. Urbian egoten zenean, astean behin jaisten zen etxera arropak garbitzera.

Transkripzioa

-Ardi jeztega egunen bita itten zenun?
-Bai, goizen ta illuntzen.
-Goizen ta illuntzen? Eta esneik saltzen zenun?
-Ez
-Gaztaietako aprobetxatzen zenun dana?
-Gaztaia gaztaia, handik esne saltzea ta ez dao ibiltzeik.
-Nola e, kotxeik iñok bazun ordun, ez, bat ez?
-Ez, ordun zaldie o astoa o hola izaten zan, uain kotxek dauzke, uain kamiño ona baida, baiño ordun ez zeon, bidea, bidek eta txarrak gaiña!
-Zaldik eta astok?
-Bai.
-Zuk bazendun. Zuk bazanun?
-Bai nik'e banun. Astoa ta zaldie ta bi nittun nik gero, zaldie o behorra beti
-Han zenen garaian bate jeisten ziñen behera? Jeste ziñen bera bate? Han zendela Urbin zendela?
-Bai, etxea askotan.
-Bai? Zenbatetan?
-Ba asten behin bai behintzat erropak, erropak garbitzeko ta nik itxea ekartzen nittun, nei familin beti gauz hori, ondo esango nuke, nei beste eozein lekutan bezelaxe prepatzen zien ta plantxauta're gehio gustatzen zaian ta nere arreabak eta plantxauta bialtzen zien neri. Bai etxen garbittu ta plantxauta, bai.

4.8. Ardi-moztea eta ardiak bereiztea

- **Hizlaria(k):** Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZER-002/025
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:29:08. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

- **Laburpena:** Kandidok ardiak bereizten zituen norekin ibiltzen ziren begiratuta; gainera, belarrian seinalea eramaten zuten. Ardi-moztea San Juan inguruan egiten zen, eta artzainek elkarri laguntzen zioten batzuetan. Egunean 40 ardi inguru mozten zituzten guraizeekin. Guraizeak nolakoak izaten ziren deskribatzen du. Ardiak mozteko, artzain bakoitzak bere estiloa zeukan. Kandidok besteei ikusita ikasi zuen ardi-mozten.

Transkripzioa

-Ardik e, hainbeste artalde baziela esan dezu ta, nola ezberdintzen zittuzun?

-Ba errex da, errex da, ardik bere kuadrilla jotzen du beti, bere launeta.

-Eta seiñaleik bai? Jartzen zenuen?

-Bai, bai, seiñale seiñalea general danak itten die.

-Zuek nolakoak itten ziozuen?

-Guk belarrik koska bat itten genion.

-[...]

-Bai. Uain [...] uain gastatu zaio horri iya uain arte izan ditteu guk ardik eta, uaidik aurea gutxinez [...] seitzen zun, ta uain'e behorrek eta behiek eta seiñaleakin ibiltzen die hemendik eta.

-Ardi jeztea? Ardi jeztea, ardi moztea? Barkau.

-Ardi moztea, hoi hoi artzaian lanen txarrena hoi da.

-Ze garaitan itten zenuen?

-Ba San Juanak ingurun o hola.

-Eta? Launtzaileik izaten zenuen?

-Bai elkarri laguntzen ta ibiltzen giñen hola, gu gazte jendea're, jergan edade xamarrekok eta askotan eoten giñen ta, eun bate, batenean ta, besten bestenen ta hola alkarri lagunduz baiño bakarrik'e askotan, bakarrik. Ia hola denbora txar aldi bat ein ta denborea aurea pixkat junda bazeon, bakoitzek berea danok ein nahi izaten genun ta ordun iñona ez, bakoitzea, etxen.

-Berrehun buruko artaldea mozteko, zenbat denbora behar zan?

-Bueno, zenbat denbora, guk hola beste laun, beste lanak eiñez hor bakarrik gendenak eunen, e, berrogei bat ardi eo hola mozten giñuzen ta, eun osua baiño lehen mozten zien.

-Guaizakin. Guaizakin?

-Guaizakin bai.

-Gaurkok bezelako guaizak zien?

-Bai uainidio're.

-Ala gaur makinakin gehio igual baiño?

-Bai, uaiñ e makinakin eta beste forma batzuta eiten da baiño uainidio're, ni badauzket han hango guaizak etxen. Bai.

-Bauzketzu hemen?

-Hemen ez, baiño etxen.

-Nolako guaizak izaten zien?

-Ba hola mueillia zan hola ta gero esku behatzak eta sartuta're bai, baiño bestela eskuk eta [...] zin, muelle batzuk izaten zin.

-Eta ardik mozteko bazan, e, era berezin bat, antzematen zan? Artzai bakoitzak mozteko era diferentea eo?

-Bai hori.

-Nabarmena zan?

-Nabarmen zan.

-Bai?

-Bai. Gu bezelako buruk eukita're, desberdiña mozten zien, baiño artzai zaharrak eta ondo mozten zittuenak'e bazien.
-Zuri zenek eakutxi zizun ardi mozten?
-Beste batzuk ikusita hantxe neure kasa, iñok eakutsi be ikasi, ahal zala.

5. Aisia

5.1. Txabolatik ostatura joateko ohitura

- **Hizlaria(k):** Aizpeolea Muñoa, Kandido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZER-002/017
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:21:14. **Bukatu:** 00:22:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena:** Garai hartan ostatura bazegoen. Txabolatik ostatura joateko ohitura zeukan. Igandetan jendea kanpotik etortzen zen ostatura.

Transkripzioa

- Kandido, ordun garai hartan fondaik-eta ez zan izango, ala bai?
- Bai, bai, bai.
- Bazan orduako're?
- Fondea, nik e... hauntza abiatzeako bazeon fondea ta elizea're bai, bik alkarren gertun dare hola, ehun bat metron diferentzie o hola.
- Bai. Bik zien ordun'e?
- Bik.
- Ta ze bizimodu eamaten zenduen, txabolatikan fonda-ta juten ziñeten?
- Bai, bai. [...] gustatzen zitzaion.
- Artzaiek beti izan du, ezta, zea hoi, tabernako...
- Bueno, ta gero...
- [...]pixkat...
- Jaietan-ta kanpotik jendea-ta ta juten zan ta beti, han ze ikusie beti eoten zan fonda alden, e!
- Bai? Kanpotik jende asko biltzen zan ordun'e?
- Bai, bai, bai. Ta ordun han, ni [gauza] baten oain akordatzan naiz, Oñati ta alde hortati fabrikeak-eta gehio zeren eta horti juten zan jendea. Hemendi, hemendi arten fabrika gutxi zeon ta fabrikan dirue irabazten don jendea behar izaten do hola ibiltzeko, ta hootati ez zan juten; bakarren bat-o jungo zien, baiño gutxi.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. 1912an Zeraingo Mendarte baserrian jaioa (ZER-001/001)

1912an Zeraingo Mendarte baserrian jaioa. 10 senideko familia. 12 urtera arte Seguran eta Zerainen ibili zen eskolan eta gero, neskame joan zen Donostiara. 18 urterekin ezkondu eta zazpi seme-alaben ama da.

2. Eskolan adin guztietakoak batera (ZER-001/005)

Eskolan, adin guztietakoek batera ikasten zuten.

3. Zeraingo eraikuntzak (ZER-001/008)

Zerain herri txikia bezain polita iruditzen zaio. Etxe berrien eraikuntza dela eta, kanpoko jendea bertaratu da. Herriko zenbait eraikuntza aipatzen ditu; eliza, San Blasko ermita, kultur etxea, taberna, bolalekua, pilotatokia...

4. Aizpe auzoan bolalekua eta agroturismoa (ZER-001/009)

Bolalekua lehenago ez zegoen gaurko tokian, orain bolaleku berria dago Zerainen. Lehenago, Aizpe auzoa deiturikoan zegoen bolalekua bertako nahiz kanpoko jendearentzat. Auzo honetan agroturismo berria dute, asko gustatzen zaio. Agroturismoko jabeak aipatzen ditu eta inguruan geratzen diren herriak.

5. Herriko eraikinak ikustera, kanpoko haurrak (ZER-001/010)

Taberna, sagardotegia, oilasko granja izendatzen ditu. Garai batean ez zeuden gaurko eraikin hauek. Kanpotik haur asko gerturatzen da.

6. Ikasketak Zerainen egin eta gerora kanpora lanera (ZER-001/011)

Txikia zela Zeraingo eskolara eta koskortutakoan neskame edo kanpora ateratzen ziren lanera.

7. Apaizek zelatatzen zituzten erromerietan (ZER-001/013)

Festak, abuztuko Andra Marietan egiten dira betidanik. Soinua, dantzariak, bertsolariak izaten ziren lehenago. San Roke eguna ere festa eguna zen eta parranda egiten zuten. Filarmonika entzun eta ilundu aurretik etxeratzen ziren. Apaiz etxea zenean, dantzan ari zen jendea zelatatzen zuten apaizek.

8. Inguruko festetarako baimena soilik; San Juanak (ZER-001/014)

Inguruko herrietara joaten ziren festetara eta gertuenekoetara joateko bakarrik eman ohi zieten baimena. Dantza lotua egiten zen herrietara debekatua zuten, bekatua zelako. San Juan bezperan sua egiten zuten herriko plazan eta etxe guztietan. Festa haundia zen.

9. Segurako Aste Santua, Santa Engrazi ermita eta Zeraingo San Blas (ZER-001/015)

Seguran aurreratuago zeuden eta dultzaineroak eramaten zituzten. Segurako ospakizun handiena Aste Santuko prozesioa da. Lehenago ere gaurko jantzi eta ohitura berdinez egiten zuten. Santa Engrazi ermitako eguna eta Zeraingo San Blas aipatzen ditu.

10. Gaur egungo Zegamako festak eta seme baten gaztetako ibilerak (ZER-001/016)

Zegamako festetara ez ziren joaten dantza lotuagatik, baina gaur gazte asko ibiltzen da eguna argitu arte. Festa famatuak dira San Bartolomeak. Seme-alabak joan ohi ziren Zegamara. Seme baten ibilerak kontatzen ditu.

11. Herriko errotak (ZER-001/017)

Inguruetako errotak: Aizperro, Armaola, Arrabiola, Urnausi, Malen errota...

12. Artilea oso estimatua zen lehen (ZER-002/026)

Artilea nola saltzen zen azaltzen du. Artilearekin koltxoia egiten zituzten, mantak... Lehen artileak estimazio handia zuen. Haria nola egiten zen azaltzen du eta hartarako zer makina erabiltzen zen.

13. Haria egiteko prozesua (ZER-002/027)

Haria egiteko, lehenengo garbitu egin behar izaten zen eta geroago lehortu. Garai batean artileak zer prezio zuen azaltzen du.

14. Arkume garaia (ZER-002/028)

Lehen Urbian behor asko egoten zen. Arkume garaia buruz hitz egiten du.

15. Ardien gaixotasunei nola egiten zien aurre (ZER-002/029)

Ardiek gaixotasun asko izaten zituzten eta asko hiltzen ziren. Albaitaria mendiraino ez joateagatik, artzainak eurak moldatzen ziren ardiak sendatzeko. Ardiei injekzioa ematen zitzaien errapeko gaitza bazeukaten.

16. Ardiak osasuntsu mantentzeko zenbait ohitura (ZER-002/030)

Amarik gabe geratzen zen arkumeari beste ardi baten esnea ematen zioten. Askatan zotala eta karea botatzen zuten eta handik pasatzen zituzten ardiak. Buztanak mozten zizkieten ardiei.

17. Hiru ahari 200 ardirentzat (ZER-002/032)

Etixerako hiltzen zituzten ardi batzuk. 200 ardiko taldean, 3-4 ahari edukitzen zituen Kandidok. Ahari batzuei adarrak mozten zitzaizkien, baina besteei ez; adarrak zerrarekin mozten zituzten, trabarik egin ez zezaten.

18. Ardien zahartzaroko gaixotasunak (ZER-002/033)

Ardiek, zahartutakoan, izaten zuten gaixotasun bati buruz hitz egiten du.

19. Ardiak erditzean egoten ziren zailtasunak (ZER-002/034)

Ardiak erditzen zirenean, batzuetan zailtasunak egoten ziren: kasu batzuetan arkume jaioberriak hil egiten ziren, eta beste batzuetan ardiak ere bai. Ardiak erditzeko garaian zailtasunak zeudenean, Kandidori deitzen zioten.

20. Ardiaren koloreak zer bereizgarri zituen (ZER-002/037)

Lehen ardi beltz gutxi hazten zen, ilea normalean zuria nahiago izaten baitzuten erostunek. Ardi gorria orain asko erabiltzen da. Ez du uste ardi mota bat bestea baino hobea denik.

21. Ardiak nola kontatu eta bildu (ZER-002/038)

200 ardi zituenean, haiek kontatzeko erraz moldatzen zen; nola egiten zuen azaltzen du. Kandido kanpoan egoten zen garaian, ardiek alde egiten zuten txabolatik, eta gero haien bila joan behar izaten zuen.

22. Artzaintzaren inguruko legeak (ZER-002/039)

Garai hartan, artzainek ez zuten kanpotik laguntzarik jasotzen. Beren artean, ordea, elkarri laguntzen zioten. Herri jakin batzuetakoa izanez gero, Urbian ardiak edukitzeagatik ez zuten ordaindu behar izaten. Herri horiek zein ziren aipatzen du.

23. Urbia vs Urbasa (ZER-002/041)

Urbia eta Urbasaren arteko aldeak aipatzen ditu.

24. Urbasa eta Urbiako bizi-baldintzak (ZER-002/042)

Urbasan txabola non zeukaten azaltzen du. Urbian zegoela, ura ez zegoen txabola ondoan. Argia lortzeko, karburoa erabiltzen zuen, bai Urbasan, bai Urbian.

25. Gerrara soldadu eraman zutenekoa (ZER-002/049)

Gerra hasi aurretik, ez ziren konturatzen egoeraz, gazteen kontuak baitzituzten buruan oraindik. Soldadu eraman zituzten mutil batzuk, eta gosea pasa zuten han. Frontera joan behar ez zutenean, kuartelean egiten zuten jan eta lo. Euskaldunak izateagatik ez zituzten desberdin tratatzen.

26. Eskolara ordubeteko bidea (ZER-003/003)

Zerain oin baino herri txikiagoa zen lehenago. Orain etxe berriak egin dira. Biek ordubeteko bidea zuten eta gutxi joan ziren eskolara. Etxetik ekarritako bazkaria jaten zuten.

27. Ilunetan herrira (ZER-003/004)

Askotan ilunetan etortzen ziren herrira. Kandela gauza handia zela dio Gregorik. Milagrosek beti ezagutu du argindarra etxean, baina Gregorik ez. Ur garraioan iturritik.

28. Adreilu beroa ohea berotzeko (ZER-003/006)

Adreilu beroa eramaten zuten ohea berotzeko. Bi lagunek egiten zuten lo ohe bakoitzean.

29. Arto-malutazko edo artilezko koltxoiak (ZER-003/007)

Koltxoiak artilezkoak edo txurikinez (arto-malutaz) egindakoak izaten ziren. Koltxoiak nola egin eta zaintzen ziren

30. Gariaren lanak (ZER-003/009)

Itulan ere egin behar izaten zuten. Garia igitaiz ebaki, metan lehortzen jarri eta eguzki beroa zenean harri gainean jotzen zuten. Nola jotzen zen.

31. Nesken jolasak (ZER-003/010)

Tabaka" (tortoloska) ibiltzen ziren jolasean, eta "lunesketan" ere bai eliza atarian, lurreen marraz eginda.

32. Maisu-maistra gehienak euskaldunak (ZER-003/013)

Euskaraz egiten zen eskolan hasieran. Euskaldunak ziren irakasleak. Gero irakasle erdalduna izan zuen Milagrosek.

33. Etxetik alde egin behar gerra hasieran (ZER-003/016)

Gerrako frontea goiko mendian zegoen; baserriak utzi eta herri ondoko etxeetara etorri ziren biak denboraldi baterako. Milagros Otatzan eta Gregori Bidarten egon ziren.

34. Berrogei egun etxetik kanpo (ZER-003/017)

40 egun egin zituzten baserritik alde eginda, herriko bi etxetan. Penaz itzuli zen Milagros etxera, primeran pasatzen baitzuen. Gregori San Roke egunean etorri zen behera.

35. Espainiako bandera eramatera behartu anaia (ZER-003/020)

Anaiari militarrek Espainiako bandera eman zioten eramateko, eta Oñati aldera zihoala, bandera utzi eta etxera itzuli zen. Milagros pozik bizi izan zen etxetik kanpo egon zen berrogei egunetan, kantuan, dantzan eta jolasean nahikoa eginez.

36. Ez zieten ezer lapurtu gerra denboran (ZER-003/021)

Etxera itzuli zirenean, ez zuten ezeren faltarik sumatu, ez zen lapurretarik izan. Tirorik ere ez zen izaten goiko mendian; bai, oster, Ormaiztegi aldeko mendian.

37. Errazionamendua hartzera herrira (ZER-003/023)

Errazionamentua hartzera etortzen ziren baserritik, ordubeteko bidean. Igande arratsaldetan gehienetan.

38. Bide negargarriak baserrietara (ZER-003/024)

Oso bide txarrak zeuden orduan. Lokatza handia egoten zen. Kaminoa herrian amaitzen zen. Telefono bakarra zegoen eta arduraduna ordubeteko bidean edo gehiagoan joaten zen abisuak ematera.

39. Josten ikasten Zegaman (ZER-003/027)

Ez dira sekula neskame egon. Milagros josten ikasten ibili zen Zegaman. Gregori ez, lana eta lana egin behar izaten zuelako.

40. Dantzan eta kartetan jaiegunetan (ZER-003/029)

Jaiegunetan Milagros eta lagunak Barbari auzoan edo txabolaren baten biltzen ziren jolasera eta kartetan egitera. Gregorik-eta soinujoya beti ezagutu dute inguruan eta dantzara biltzen ziren baserrietan.

41. Lau herritako festetara bakarrik (ZER-003/030)

Garaiz itzultzen ziren etxera, ilundu baino lehen. Lau lekutara joaten zen bakarrik Milagros festetan: Segura, Zegama Mutilora eta Zeraina. Etxe inguruan moldatzen ziren bestela, dena urrutiz zuten eta.

42. Neska-laguntzea eta senargaiak (ZER-003/032)

Neska-laguntzera joaten ziren mutilak inoiz galdu egiten ziren itzuleran. Osaba batek adarra jotzen zien horren kontura. Txiki-txikitatik ezagutzen zituzten gero senarrak izango zirenak.

43. Elizan sartzea eta bataioa (ZER-003/034)

Zeremonia berezia zen amaren "elizan sartzea". Bataioa haurra jaio eta bigarren edo hirugarren egunean egiten zen, hilko ote zen beldurrez.

44. Konfesioak eta ondreak (ZER-003/037)

Orduan jende asko joaten zen konfesatzera. Orain gutxi eta gainera ondo gosalduta. Dena aldatuta dago. Lehengo jainkoa egongo ote da orain ere? Makina bat ogi ere eramaten zuten elizara. Apaizak txerriak gizentzeko erabiliko omen zituen.

45. Arrosarioa eta gaubela hildakoaren omenez (ZER-003/039)

Lehen etxean edukitzen zen hildakoa. Arrosarioa erreztatzera biltzen zen jendea berandura arte eta gero etxekoek egiten zioten gau-bela. Bizkarrean eramaten zen zerraldia.

46. Pozik artzain-lanean umetan (ZER-003/042)

Elutza mendira joaten ziren egunero ardi jeztera. Anaiak feriara joaten zirenean gustura ibiltzen ziren umeak artzain-lanean. Txakurra izaten zuten laguntzaile. Gregorik ez du ardirik ezagutu.

47. Oñatira azokara edo prozesioa ikustera (ZER-003/046)

Gregori asko joan da Ordiziako feriara. Oñatira ere joaten zen astoarekin azokara. Milagros, berriz, Corpus Egunean lagunekin joaten zen prozesioa ikustera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com